

ELKARRIZKETA

Euskal Gobernuak Lan, Osasunketa eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarte Ongizate eta Segurantzaren Saileko Kontseilariordetzak Parlamentuari lege bat aurkeztu zion, kontseilariordearen hitzetan sektorea goratu zuena, eta 1982ko Maiatzaren 2an onartu izan zena. Geroago sail horrek berak sortu du Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua, kontsultarako funtzioak dituen, bertan, era parekatuan ordezkaturik egonik Gobernuak, Foru Aldundiak, Udaletxeak, sektoreko langileak eta erabiltzaileak.

Gizarte Ongizateari dagokionez euskal gizarteak dituen eragozpenez eta Saileko Kontseilariordea den Jose Luis Zubizarreta jaunaren eritzi pertsonaiez hitzegiten da elkarrizketa honetan.

"Zerbitzu Sozialen Legeak, 1982an Euskal Parlamentuak onartu zuenak, beste lege autonomiko batzuk idaroki ditu".

Bai, horrela da. Zerbitzu Sozialen gure Legeak egun haietan interes handia sortu zuen gure Komunitateko sektore ukituetan eta berehala hedatu zen beste Komunitateetara. Horrela bada, inspirazio bezala balio izan du gerora promulgatu diren beste lege autonomoentzat, hala nola Nafarroakoa, Kataluniakoa, Madrilgo Komunitate Autonomokoa etab. Eta dakidanez beste zenbait komunitatek ere aintzakotzat hartzen dute. Gai horretan Estatu arduradunak ere etengabe ari dira hitzegiten Zerbitzu Sozialen Lege bat onartzeko estatu mailan, nahiz eta oraindik argi ez duan zein den Estatuari geratzen zaion gunea, Komunitate Autonomoek eskusiboki beregain hartu duten kompetentziari dagokion gai bat legistatzeko, baina hori besterik da.

Herri honetan zerbitzu sozialak beti bertan behera utzitako sektorea izan da eta beren profesionalek ez dute nortasun garbirik; ene ustez, horretan datza sortu den interesa eta harrera onaren arrazoia. Besterik gabe Parlamentu batek gaiaren gain arau bat eztabaidatzea badirudi publikoki onartze ahalgin bat dela, sektorearen duintze bat.

Bestetik, gizarte eta botere publikoaren nahierara utzia bezala zegoen eta hain gutxi legistatua izan den gai honetan Lege bat izatea, herritarrak irits dezakeen lehen ekintza esparrua izatea da: dagoeneko aipatuak dira erantzunkizun publikoa, aktuzio-eremua, erantzunkizun maila administratiboak, finantza-pena, Administrazioaren eta ekimen sozialaren rolak, partizipazio-eremukoak, etab. Ene ustez, guzti hori, oraingoz landugabeko eremua izanik ere, aurrerapauso handi bat iraganarekin konparatuz gero.

Azken finean, zalantzarik ez dago, legeak —kuriroski, zeren ez bait da izaten hori le-geen eragin tipikoa— lagundu duela, faktore garrantzitsu moduan, beste arrazoiengatik dinamismo seinaleak ematen ari zen sekto-rea dinamizatzen. Eta zentzu horretan, bere akats eta guzti, lege baliagarria izan dela us-te dut.

Besterik da Administrazioak desafio gisa hartu zuenak erantzun berdina ez izatea mai-la guztietan.

Erantzun instituzionalaren balorazioa.

Legeak erantzunkizunak banatzen ditu gure Komunitateko hiru maila administrazioetan: Gobernu, Foru Aldundi eta Udaletxeetan. Nere ustez bi lehenengoak, ondo edo gaizki, ahalegindu dira erantzunkizunei erantzuten. Eta hori horrela da, aurrekontuen alorrean ere, non Foru Aldundiek, Arabakoaren salbuespena eginik bere aurrekontuetako esfortzua oso maila altuan zegoelako, beren baliabideak bi edo hiru aldiz gehitu dituzten.

Zalantzarik gabe ezberdinago izan da Udaletxeetan. Eta hori argitzeko arrazoiak ez dira falta.

Beno, lehenengo, ekonomikoa dago. Mundu guztiak daki finantzaketa munizipala eskasa zela jadanik lehenengo betebeharrei aurre egiteko. Zerbitzu Sozialen iegeakzama bat bota die gainera —ez berria, ordea— finantzaketarako iturri berri garbikeman gabe. Eta horren frogak finantzaketa sendoa duten Euskadiko Udaletxeek gogoz hartu dituztela Legeak inposatzen dizkien erantzunkizunak eta bete betean sartu direla gaian.

Baina finantzaketa ez da guztia. Finantzaketa eskaxarekin Euskal Udaletxeek beste arlo batzuetako zerbitzuak landu dituzte azken urteotan, hala nola kultura, kirola, osasun zerbitzuak ere bai, horientzako finantzapen iturri gehigarriak ez izan arren. Ene iritziz badaude, kontuan eduki beharreko gero-ko beste bi faktore.

Horietako bat noraezean ibiltzea da. Udaletxeek —eta horrek ez du gizartean gertatzen dena isladatu besterik egiten— ez daki-



te zuzen zertaz ari den bat zerbitzu sozialez mintzo delarik. Eta era orokor batez dakite-nean eta zerbait egiteko prest egongo lirate-kenean, bere funtzionamendu, antolamen-du, menpekotasun, helburu eta abarren gain erizpide garbiak ez dauzkate. Bide horretan, asesoratze tekniko lanak ugaritu beharko di-tugu, zeren eta kasu konkretuetan egiten den arren, sistematikoki gehiago hedatu be-harko da. Oraingoaz hasiak gara, hiriburue-tako hiru Udaletxeei zuzendutako Zerbitzu Sozial munizipalei buruzko ihardunaldi tek-nikoekin. Ikusiko dugu zer fruitu ematen du-ten eta nola heda daitezkeen besteetara.

Baina badago beste faktore bat Udaletxe askotako pasibitatean eragin handia duena eta da, esaldia erabiltzerik baldin badago, zerbitzu sozialek "ez dutela ondo saltzen". Lehen aipatu dudak bezala, Udaletxeek fi-nantzaketan ezdutegehiagi begiratu kultura edo kirola bezalako zerbitzu saltzailegoak zi-renean. Gustatuko litzaidake jakitea zenba-terainoko zama suposatzen duten kutxa mu-nizipaleentzat inauguratzen ari diren poliki-roldegi eta kultur etxeen ohizko gastuak. Baina zerbitzu horiek, beharrezkoak izateaz gain ikusgarriak dira, "itxurosoak", irudia ematen dutenak. Ez, ordea, zerbitzu sozialak, batez ere Karitatea edo Benefizentzia bezala ezagutzen direnak, itxuraz, zama bat beste-rik ez direnak, eta gainera hain errentaga-riak ez diren zenbait kolektibotan erabiliak direnak.

Bai, oraindik lan asko egin beharra dago arlo honetan. Baina esan dezaket legislatura honetako helburu nagusietarik bat, arlo ho-netan zeresan handia duten hiru Foru Al-dundiak bat etorririk, zera da, Komunitate Autonomoan zerbitzu sozialen sare munizi-pala sortzea, halakotzat erraz ezagutu lite-keena. Eta hor zintzo jokatu behar dugu eta ez pasibitatearen erru guztia Udaletxeei bo-ta, baizik eta onartu beharra dugu Adminis-trazioko beste bi mailak ezinbesteko sektore hau bultzatzen laguntzeko premia; zerbitzu sozialen aldeko laguntza hau aholku eta fi-nantzaketaren bidez emango litzateke. Sare municipal on batek elkar lotu egingo luke zerbitzu sozialen multzoa zeinak gaur egun ere gure komunitatean esistitzen diren.

Legeak alde aurretik ikusitako organo parte-hartzaileen rola.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak eta tokian tokiko Lurraldetako Kontseiluak partaidetasun foru bat osatzen dute, non partaide desberdinek, esparru ezberdinetatik etorririk, aukera izango duten bere ara-zoak eta kezkak bateratzeko. Nik uste dut lagundu dezaketela hain zuzen ere osotasun kontzeptu bat lortzen, gaur egun erabat zati-tua dagoen gai batetan. Besterikgabe mahai baten inguruan sektore hain ezberdinetako ordezkariakesertzeak izan dezake eragin ba-teratzaile bat. Eta alderdi horretan ene ustez Udaletxeek izan behar dute, hain zuzen ere, gaur hain sakabanatua dagoen taldeari ko-hesioa emango diotenak, zeren zerbitzu guz-tiak nola edo hala beren eskuetatik pasa be-harko bait lukete.

Goiz da oraindik kontseilu horien eragina juzkatzeko, horietako batzuk denbora gutxi bait daramate lanean. Eta bihotzak ematen dit badagoela halako jakin nahi eta eszepti-zismo nahasketa bat beraien eginkizunaz. Ni ez naiz, hasieratik behintzat eta besterik ga-be, horien kontra hasiko. Batzutan jendea-ren zalantzak partaideen heterogeneotasu-nean du oinarria, eta neretzat horixe berori da ahalmenik handiena, zeren horietariko bakoitzak besteari aditu beharko bait dio, le-hen, izan ere, beste horri entzuteko oso aukera gutxi izan duelarik. Hemen azpisek-tore bakoitzak bere artean hitzegiten du bai-na gutxitan jartzen da besteekin harremanetan, horrek daraman espezializazio eta be-reizgo arriskuarekin. Kontseiluek harreman eza hori puskatzen eta zerbitzuz osatutako sare bat sortzen laguntzen badute, uste dut lan bikaina egingo dutela.

Karitatariakeskubidetara: Estatu Ongilea.

Badirudi herritarraren eskubideak zein-tzuk diren ez daukatela argi ez Administra-zioak eta ez Gizarteak. Adibidez hain sarritan agertzen den zahar behartsuaren arazoan, ez da gutxitan botatzen haren zaintzearen erantzunkizuna berefamiliaren gain. Zentzu horretan esango nuke gure gizartean fami-liak, klan familiarraren zentzu zabalean.

erroak sakon dituela oraindik "Familiarteko solidaritatea" deitutakoaz ideologia merkea ere egin da beste herri zenbaiten egoerarekin konparatuz, familia —ustez, bederen— suntsitua bide den herriekin, alegia. Punto honetan, nire eritziz, garbi jokatu beharra dago. Gauza bat dira familiak bere partaidekiko dituen betebeharrak, aldakortasun ekonomiko, sozial, kultural eta agian erlijiozko askoren menpean daudenak eta bestea herritar batek Estatu edo Administrazioaren aurrean erakus ditzakeen eskubideak. Nere ustez, seme batek bere aita zaindu beharrak ez luke inolaz ere oztopo izan behar aita zahar horrek Estatutik hainbat laguntza jasotzeko duen eskubideari begira. Estatuarentzat garrantzi gehiago izango dute azken horren eskubideak familikoen eginkizunak baino. Zeren, gainera, zaharrak eskubide osoa du bere familikoen menpean ez egoteko. Eta horrek balio du beste mota bateko herritarrentzat ere.

Alabaina, zerbitzu eskaintza eskasa den egoera batetan eta behartsuenentzat onuragarri gertatzekotan, normala da banatzeko garaian famili ingurunea bezalako egoerak kontuan hartzea. Baina egoera hau kojunturala da eta hori ere ezin daiteke ahaztu; helburua litzateke Administrazioak herritarren egoera soila kontuan hartzea, famili inguruneaz erreparatu gabe. Eta guzti hori nola zerbitzuak eskaintzeko orduan hala bere finantzaketan erabiltzaileen parte hartzea erabakitzeko orduan. Zeren Estatuak ahalegindu behar bait du bere herritarren beharrak betetzen, baina ezin ditzake familiarteko edo gizarte mailako solidaritatearen lokarriak funtzionarazi.

Joera horrek, badakit, muturreraino eramanda, nahitaez, "Velfare State" edo "Estatu Ongile" delako horretara eramango gaitu, eta hori, esan dezagun bide batez, oso eztabaidatua da herri aurreratuenetan.

Halere kezkatzen nau herri honetan Europa hurbiltzea "velfare state" delakoa eztabaidatzeko orduan gertatzeak, sortzeko garaian hain urrundurik egon ginenean. Ene ustez, Estatu Ongilea bizi izan dutenek eztabaida dezakete zeren guretzat zaila bait da, babes sozialaren maila oso baxuan gaude-larik.



Dena dela, Estatuaren aurrean herritarren eskubideak defendatzea —zergak ordaintzen dituen herritarren eskubideez ari naiz, hori bait da kontua— edo Estatuak herritarrekiko dituen betebeharrak azpimarratzea ez dago, inolaz ere, kontrajarria gizarteak, Estatutik kanpo eta berekasa, bere buruari laguntzeko duen eskubidea defendatzearekin. Izan ere, "velfare state"ak dira Estatuarekiko autonomia gehien aldarrikatzen dutenak, aipatzen ari garen zerbitzuak eta antzekoak prestatzeko eta antolatzeko orduan. Pentsatu besterik ez dago, adibidez, anglosaxoniarrak gizarteetan zeinak Estatuaren egitura mota guztiak gainean izan arren beren autonomia propioari dagokionean oso zorrotzak diren. Orain aipatzen ari garen zerbitzu sozialen eremu honetan, hain zuzen, elkarkidetasunezko mugimendu pribatuak, minusbaliatuen, zaharren eta abarren arloan askoz ere sendagoak eta dinamikoagoak dira gure artean baino, nahiz eta zerbitzu publikoen presentzia beraien artean askoz handiagoa izan. Eta beste hainbeste esan daiteke "borondatezko" mugimenduez. Badago gizarte horietan harrokeria itxurako zerbait aparatu publikoek irentsiak ez gertatzeko.

Susmoa badut gure artean mugimendua kontrakoa ez ote den: "Administrazioak egin dezala" esaten da. Hori nahikoa normala da orain arte egiteko erakutsi duen gogoia kontutan hartzen badugu. Baina esanguratsua da ahalmen ekonomikoa izan duten lekuetan gizarteak ahalegin guztiak egitea zerbitzuak gaineratik kentzeko eta zuzenean erakunde publikoari eransteko. Adibidez, Arabaren kasua: aipatuak ditugun zerbitzu gehienak Foru Aldundiaren menpean daude.

Dena dela, ez dut ahazten hitzaldi tipo hau oso anbigua gerta daitekeela. Esan nahi dudana da eremu horretan erantzunkizun publikoaren ezagutza oso eta argiakezduela inoiz ito behar gizarteak duen eskubidea bere organizazioen bidez bere burua lagun dezan. Are gehiago, publikoa ez den ekimen sozialak leku izatea, leku zabala gainera, ez da derrigorrez hartu behar "hirugarren munda"ko ezaugarri bezala, Administrazioak erantzunkizun guztiak bere gain hartuak izanez gero, noski. Bide batez, esan dezagun erantzunkizun horiek ez direla finantzaketa alorrekoak soilik, baizik eta plangintza eta programazioari dagozkienak ere.

Gure artean zerbitzu sozialak ez dira iritsi sare edo antzeko sistema bat osatzera, hori guztiok onartu beharra daukagu; konglomeratu kondarrak besterik ez den zerbitzu multzo horrek sistema instituzional handiek —osasuna, kultura, hezkuntza, lana etab.— utzitako hutsuneak betetzen ditu. Sistema horiek egiten ez dutena baina egin beharko luketena Zerbitzu Sozial deiturikoentzat gertatzen da. Horri buruz adibide adierazgarri bat izan daiteke Osasun Zerbitzua: ospitale-tako eta anbulategietako asistentzia instalatzen ditu, baina argi ez dago oraindik geriatrikora edo minusbaliatuen berrabiltzera zuzendu beharko lukeen, askotan, oraindik Zerbitzu Sozialen eskutan dagoelarik.

Mugimendu elkargarriek sektorean duten rola.

Gure herri honek beti ezagutu izan du elkarkidetasun pribatu nahiko sendoa, eta oraindik ere gurasoen eta erabiltzaileen mugimenduek garrantzi handiko lan bat egiten dute zerbitzu sozial askori dagokienean, batez ere minusbaliatuen arloan. Eta horrek

erakusten digu berriro gizarteak, edo bere sektore batzuk, bere erantzunkizunak eta beharrak Administrazioeko organoek baino askoz lehenago bizitzen dituztela. Baina fenomeno hori ez da nik deskribatu nahi izan dudanaren berdina. Lehenbizi aipatu nahi nuen mugimendu sozialen etengabeko bizitza, zerbitzu publiko sistemak oso garatuak dauden Estatuetan. Gure herrian, fenomenoaren jatorria zerbitzu publikoen gutxiagizko egoera daiteke. Egoera horretan gizartea mugitzen da Estatuak egiten ez duena egiteko. Eta horrela da, gure gizartea aitzindari da era horretako elkargoetan, zeinek, azken hogeitaz urteotan zerbitzuak sortu eta gorde dituzte, direnak eta ez direnakaurka izanik. Eta hori, benetan, ekintza positiboa da.

Orain, dirudienez, Administrazioak bere utzikeria alde batera utzi nahi du eta horren ondorioz krisialditxo bat sortu da, bakoitzak dagokion lekua berraurkitu nahi baitdu. Izan ere, zalantzarik gabe, mugimendu sozial horiek aspalditik erakunde publikoak bete behar zituen esparruak betetzera beharturik egon dira, eta haiek lanari ekin nahi izan diotenean, inor zapaldu gabe ihardutea zail zaiela ikusten dute. Nik uste dudanez, espazioen birbanaketa aldi bat pasatzen ari gara, eta hori korapilotsua gertatzen da beti. Ekimen sozialak mentalizazio eta erreibindikazio mugimenduekin hasi ziren. Gaur egun, hemen dauzkagunak, zerbitzuen planifikaziorako erakunde bilakatu dira denboraren poderioz eta jatorrizko izakera alde batera utzi dute. Gurasoek profesionalei bide eman diete, hala haiek beren jatorrizko rola galdu dute eta profesionalak, berriz, zerbitzu agentzia bihurtzeko zorian daude. Administrazioak bere aldetik, hainbeste erantzunkizun uzte egin ondoren, finantzatu baino zerbait gehiago egin nahi lituzke egun batean sortu ez zituen eta orain guztiz kontrolatzen ez dituen zerbitzuak. Eta noski, tirabirak sortzen dira. Nik uste, berregokitzeko ahaleginei darrizkien momentuko tirabirak dira, eta elkarritzeta askoren bidez eta, agian, "jaunen arteko hitzarmen" moduko batekin luza gabe gainditu ahal izango dira. Hala ere, herri anglosaxoniarrak buruz mintzatzerakoan aipatzen nuen egoerara iristeko nahitaez pasa beharko dugu erlazioen objektibazioa, espazioen berregokipena eta rolen birbanaketa lortzeko aurre-fase batetik.

Zeren uste dut denok ados gaudela horrelako zerbait egin behar dela esatean. Mugimendu horiei inolako meriturik kendu nahi izan gabe, bistakoa da akats batzuk badauzkatela, guztion onerako zuzendu beharko liratekeenak. Adibidez, ekimen sozial horiek konpartimentaziora jotzen dute, hots, beren bezeroentzat erabateko zerbitzuak sortzera, beste sistema publikotan nahiz ekimen pribatu paralelotan lehendik bazirenak edo sortuz doazenak kontutan hartu gabe, horrela baliabide bikoizketa erakarriz. Edo, beste zentzu batean, deskoordinaziora jotzen dute eta oso zerbitzu sare desorekatuak sortzeko arriskua dute, bultzatzen dituztenen indar sozialen arabera. Horri dagokionez, ikusi besterik ez dago Gipuzkoako eta Bizkaiko adimen urrikoen eta garun-paralisdunen zerbitzuen artean dagoen desoreka, zerikusi handia bait du bi lurraldeotan horiek bultzatzen dituzten taldeen indar ezberdinak. Eta zer esanik ez, gutxiratu psikiko eta sensorialen eta gutxiratu fisikoen artean dagoen zerbitzu desberdintasunaz, kasu hone-

tan ere zerikusi handia bait du beraiek ordezkatzeko dituzten elkarleen indar edo ahuleziak, sektore txiki honetan, eta benetan, presio talde modura jokatzeko dute-eta. Zalantzarik ez dago egoera horiek zuzenketa behar dutela eta horri buruz zeresatekorik baduela Administrazioak.

Eta baikorra izan nahirik, uste dut zerbait egiten ari dela bide horretan. Adibidez, asko ugaritu da talde desberdinen arteko harremanak, elkarren arteko bileren, mahai inguruen, ihardunaldi teknikoaren eta abarren bidez, horrela gaur egun talde bakoitzak badauki besteek zer egiten duten. Eta elkar ezagutze horrek, beste hainbat neurritatik aparte, bideratzen gaitu zalantzarik gabe zerbitzuen homologaziora, herri batetan nahitaezkoa dena. Nik uste dut aurreratze handia egin dela aipatzen nuen alde aurreko aldi horretan eta aurki sar gintezke harreman objektibo eta neutralago batzutan, non alde bakoitzak berraurkitua izango duen tokatzen zaion gunea.



Jose Luis Zubizarreta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Gizarte Segurantzaren Saileko Administrazio eta Planifikaziorako konseilari Ordezkoa da.